

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Zein dira behar ditugun bazkide eta hornitzaile nagusiak gure proiektuak funtzionatu dezan?

Enpresa aurrera eramateko beharrezko langile edo bazkideak diseinatzaileak, jostunak eta marketin eta ekonomiako profesionalak dira. **Bazkideak** izango dira proiektuaren jabetzan eta erabaki estrategikoetan parte hartzen duten pertsonak: adibidez, **diseinatzailea** (produktuen estiloa eta balio-proposamena definitzen duena), eta **ekonomiako edo kudeaketa arloko profesionala** (finantzak, administrazioa eta negozioaren norabide estrategikoa kudeatzen duena). Bestalde, **langileak** izango dira eguneroko ekoizpena eta funtzionamendua bermatzen dutenak: **jostunak**, arropak neurritara sortu eta egokitzapenak egiten dituztenak, baita **marketineko profesionalak** ere, marka sustatu, bezero berriak erakartzen eta komunikazio-kanalak kudeatzen dituztenak. Horrela, bazkideek enpresaren norabidea eta erabaki nagusiak gidatzen dituzte, eta langileek zerbitzu eta produktuaren kalitatea bermatzen dute eguneroko lanean.

Diseinatzaileek bezeroek web orrialdean aukeratuko dituzten diseinu motak sortzen dituzte. Diseinu guzti horiek bezero guztien eskugarri egongo dira, aldatzen den gauza bakarria neurriak direlako. Jostunek, neurtzaileek helarazitako bezeroaren neurriak eta aukeratutako diseinuak erabiliz, arropa jantzia sortuko dute. Eskuz egin beharreko lan bat da, sartutako neurriak oso desberdinak direlako haien artean, batez ere desgaitasun fisikoren bat duten pertsonengatik.

Gainera, gure langileak ez diren eta bezeroaren neurriak hartzen lan egingo duten neurtzaileak kontratatuko ditugu, freelance moduan. “Freelance” bat profesional independente bat da, bere zerbitzuak noizean behin eskaintzen dituena, lan-kontratu finko batek lotzen ez duena eta egindako lan bakoitzagatik soilik kobratzen duena. Gure proiektuan, neurtzaileak betetzen du rol hori, gurekin eskariaren arabera lan egiten baitu: bezeroaren etxera joaten da eskaera bat dagoenean, beharrezko neurriak hartzen ditu eta zerbitzu horrengatik bakarrik fakturatzen du, zonako gure kolaboratzaileen sarean parte hartuz.

Arropa egiteko ohikoenak kotoia, lihoa, artilea eta zeta bezalako zuntz naturalak; poliesterra, nailona, elastanoa eta akriliko bezalako zuntz sintetikoak; kotoi-poliestero, artile-akriliko eta kotoi-elastano nahasketak; eta beste tela erabilgarri batzuk, hala nola denima, puntua, gabardina, pana, satin edo raso, eta tullea, dira. Banaketa-kanalean, produktuak saltzeko edo bezeroarengana iristeko modua, Correos enpresapeko zerbitzu bat kontratatuko dugu, Espainiako komunikazio fisiko, digital eta paketeria-hornitzaile nagusietako bat.

Hasiera batean, arropa-enpresa batek bere lehen eskaerak bidaltzen hasten denean, gure kasua, eraginkorrena Correosen “Paq Estándar” edo “Tarifa Plana” bidezko banakako bidalketekin hastea da. Horri esker, bidalketa bakoitzeko 13–15 € inguruko kostu

moderatuekin lan egin daiteke, kontraturik sinatu gabe eta hasieratik arrisku handirik hartu gabe. Sistema honek aukera ematen du entrega-denborak nola funtzionatzen duten, eskaera bakoitzaren benetako kostua eta bezeroen gogobetetasuna egiaztatzeko, konpromiso handiagorik hartu aurretik.

Salmenten bolumena handitzen doan heinean eta bidalketak ohikoago bihurtzen direnean, gomendagarriena enpresentzako irtenbide profesional batera pasatzea da; Correosek bilketa programatuak, bolumenagatik deskontu hobeak eta baita logistika osoa ere eskaintzen baitu (biltegiatzea, eskaeren prestaketa eta bidalketak). Horrela, hasieran kontrol handiagoa eta arrisku txikiagoa izango dituzu, eta zure dendaren jarduera handitzen denean, kostuak murrizten eta denbora aurrezten lagunduko dizun sistema eraginkorrago eta automatizatuago batera igaro ahal izango zara.

Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?

Langileak, hornitzaileak eta neurtzaileak funtsezkoak dira guretzat, haiek gabe ezinezkoa izango litzatekeelako kalitatezko arropa pertsonalizatua sortzea; langileek eguneroko jarduna eta zerbitzu pertsonalizatua bermatzen dute, neurtzaileek ezagutza teknikoa eskaintzen dute, esku-laneko langileak pieza bakoitza neurritara eta zehaztasunez egiteko, eta hornitzaileek material onenak eta beharrezko baliabideak ematen dizkigute ekoizpena posible izan dadin; beraz, guztien arteko elkarlanak bermatzen du gure produktuek kalitatea, iraunkortasuna eta bezeroaren beharretara egokitutako emaitzak izatea.